

## Bezeroekiko harremanak

Gure erakundeak, bi motatako harremanak konbinatuko ditu. Hau da, laguntza pertsonala zein automatizatu eskainiko ditugu. Laguntza pertsonalaren arloan, guk harreman zuzenak izango genituzke bezeroekin. Arreta zehatza eta pertsonalizatu eskainiko genieke, bai webguneko plataformaren bitartez, meetak eginez edo baita modu presentzialean. Gainera, bakoitzaren beharratan zentratuko ginateke, esaterako, motrizitatearekin zailtasunak dituen haur batekin, motrizitatea lantzeko ariketak landuko genituzke. Entzumenean zailtasunak dituen haur batekin, entzumena lantzeko ariketak egingo genituzke.

Automatizatuaren arloan, gure kasuan, web gunearen bidez ere gurekin harremanetan jarri daitezke.

Horretaz gain, uste dugu, ezinbestekoa dela gure bezeroekin komunikazio on bat izatea eta behar dutenean laguntza eskeintzea. Horrenbestez, esan dezakegu garrantzia ematen diogula bezeroek informazioa eskuragarri izateari, bai webgunearen eta baita erakundeko langileei galdetzearen bidez.

Gainera, gure erakundeak bezero berriak erakartzeko, publizitateaz baliatuz, kartelak eginez adibidez, pertsona asko igarotzen diren lekuetatik itsatsiko genituzke. Modu horretan, erakundeari bisibilitatea emateko aukera izango genuke. Horretaz gain, gure bezeroak gurekin mantendu daitezzen, urtean zehar hainbat ekintza ezberdin egingo genituzke, ekintza horietako batzuk adibidez, irteerak, tailer bereziak, azokak... etab.

Urtean zehar egingo ditugun ekintzen inguruan pixkat gehiago zehazteko, interesgarria iruditzen zaigu aipatzea, irteerak adibidez, museoetara, etab izan daitezkeela.

Beraz, horrekin eta familiei eskaintzen diegun arretarekin, hau da, uneoro haiek laguntzeko daukagun prestutasuna erakutsiz, uste dugu gure erakundea aukeratu eta bertan geratuko direla. Horretaz gain, arinago azaldu dugun moduan, ez dago gure erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuak eskaintzen dituen beste erakunderik, beraz, hau guztia kontuan hartuta, gure zerbitzuak aukeratu eta hauetaz gozatuko dutela uste dugu.